

Gajoaren ongarrri likidoa

ARDIAK JATEN DITU. Txileko Andeetan “*chagual*” bezala “*come ovejas*” deitzen dute *Puya chilensis* landarea. Bere arantzaz luze zorrotzetan kateatu eta gosez hildaeko ardiek eta txoriek, usteldu ahala, landarearen oinako lurra ongarrirituko dute. Ongarri horri esker emango du hiru metro arteraino gara daitekeen lorezarrara. Lore hori ikusi ere ez dute egin nahi Andeetako artzainek, eta su ematen diote. Hemen gure hagin (*Taxus baccata*) sakratuarekin gertatzen den sarraski bera. Aizkorri aldean landarearen behaketa egiten ari den lagun batek esan zidan lehengoan, harrituta: “Haginik etziok”. Artzainen hagintea. *Emporio Artzain*.

Bi biztanleko ardi bat duen Erresuma Batuan, landare ardizalea ekarri eta Lorategi Botanikotant izan arte ez zuten bakerik izan. Botanikarien agendetan azpimarratuta daude haien loratzegunak: Scilly uharteetako Tresco



LÁSZLÓ SZALAI

Chaguala, *Puya chilensis*, “ardi jalea”.

Abbey Gardenekoa 1987an, haren hazitik sortutako Galesko Portmeirionekoa 2008an, Galesen bertan, Llanarthneko Lorategi Botaniko Nazionalean, hamaika urte behar izan zituen lehen loragara emateko, eta Londresko Surreyko negutegian, berriz, hamabost. Azken hori zaintzeaz arduratzen den Cara Smithek, hamabost urtez ongarriritu eta ongarritu, lorearen kimua ikusi zuenean lasaitu ederra hartuko zuen, gajoak. Ongarri likidoa ematen omen zion, berezko dieta

naturalaz hornitzeak buruhauste latzak sortuko omen lizkioke eta.

Neurea balitz, ongarrri likidoa, baina bere dietakoa, emango nioke: ardiki odola. Ardi jendearen milaka litro odol isuriko da, Erresuma Batuan urtero, hiltegieta isurbideetan barrena; eta, norako bidea hartzen ote dute haien ile, larru, barrunbe... Lorategietara bideratuz gero, azkarrago, oparogo, alaiago, gozagarriago loratuko lirateke chagual selebreak, askoz ikusle gehiago erakarriko lukete eta zaintzaile arretatsu txorrotzak alde ederrean hartuko lituzke loak. Haren hostoetako zuntzez arrainak arrantzatzeko sareak, eta zorten lehorraz sareen flotagailuak ere egiten dira. Zerueta hegalariak, ugaztun lurtarrak eta uretako arrainak, denetik harrapatzen du chagualak. Baita gure miresmena ere. Euskal Herrian hiru biztanleko dugu ardi bat. ■



Arra, ur-aparretako arra

UR-APARRETAN diogu guk, beste batzuek ur gaineko bitsetan diotenari. Espezie dioikotant landare batzuk erabat arrak eta beste batzuk erabat emeak dira. Sexuak bereizten ditu ale batzuk eta besteak. Ez da ohikoena, jeneralean landareak hermafroditak dira. Bi sexuak batera izatearen abantailen berri geuk baino lehenago dakite... Sexuak banatuta dituztenek egoskor jarraitzen dute: fruituak hazi eta heldu, eta haziak sakabanatzearen estrategia eta lan osoa emearena da. Arrak, aldiz, urtea joan eta urtea etorri, udaberrian emea ernalduko duen polena banatu beste lanik ez du izango. Horrela uler daiteke arraren tamaina; emean aldean bikoitzak edo hirukoitzak izan daitezke, lasai asko. Hagina (*Taxus baccata*) dugu horietakoa. Hona lore arra polena askatzen. ■